

Zortzigarrena.-

**UDAL ONDASUNAK ERABILTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOA ARAUTZEN DUEN  
ORDENANTZA**

**1. 1.- Kultur Etxeko aretoen prezio publikoa.**

**Lagapen zehatza: Erabilera edo egun bakarrerako lagapen zehatza, esate baterako, bilerak, hitzaldiak...**

1.1. Erabilera publikoa (hezkuntza eta kulturaren inguruko ekintzak eta irabazi asmorik gabeko erakundeek ekintzak): doan

1.1.2. Hileta zibilak: doan

1.1.3. Erabilera pribatua (ezkontzak eta irabazi asmoa duten erakundeetako ekintzak):

Egun osoa: 50 €.

Goiza edo arratsaldea: 25 €.

**1.2. Aldi baterako lagapena: udal lokal bat hainbat emanaldi zehatzetarako lagatzea. Lagapenaren denbora osoa, balizko luzapenak barne, urtebete baino gutxiagorako izango da.**

1.2.1. Erabilera publikoa (hezkuntza eta kulturaren inguruko ekintzak eta irabazi asmorik gabeko erakundeek ekintzak): doan

1.2.2. Erabilera pribatua (ezkontzak eta irabazi asmoa duten erakundeetako ekintzak):

Egun osoa: 50 €.

Goiza edo arratsaldea: 25 €.

Aretoa aldi baterako, hau da, denbora batean hainbat emanaldi emateko, alokatzen duen pertsonari edo taldeari % 60ra arteko hobaria egin ahal izango zaio, interesdunak aurrez horrela eskatzen badu, eta kultura batzorde informatzaileak aretoan egin beharreko ekintzak gizartearen interesekoak edo onura publikorako izateagatik horrela proposatzen badu.

**1.2.3. Legez eraturako talde eta elkarteei edo irabazi asmorik gabeko pertsona taldeei** lokalak lagatzea jarduerak egiteko, jarduera horietan parte hartzeko izena ematea edo kuotak kobratu behar badira edota jarduerak irabaziak lortzeko baldin badira. Kasu horretan, kontraprestazioa lagapena egiten den unean zehaztuko da, eta ekonomikoa edo soziala izango da.

**Ekonomikoa:** Tasa kobratuko da lokaleko argi, berogailu eta garbitasun gastuak ordaintzeko.

- 1 ordu astean: 20 € hileko.
- 2 ordu astean: 40 € hileko.

**Soziala:** Kultura departamentuak eta elkarte edo pertsona fisiko eskatzaileak adostutakoa.

**2.- Musika ekipoa eta bestelako udal ondasunak erabiltzearen prezio publikoa.**

A taldea: Eskoriatzako kultur eta kirol talde eta elkarteak.

B taldea: Gainerako eskatzaileak, herrikoak nahiz kanpokoak.

A taldekoek, hau da, Eskoriatzako kultur eta kirol talde eta elkarteek, udal ondasunak doan erabili ahal izango dituzte, betiere, egin beharreko jarduera herrian egiten bada; herritik kanpo egiteko baldin badira, B taldeari ezarritako tasa aplikatuko zaie.

Hala ere, utzitako ondasunak zuzen erabiliko direla bermatzeko, 100 €-ko bermea jarri beharko dute Udalean.

B taldearentzako 2018rako tarifak honako hauek dira:

1. Musika ekipoa .....	180,00 €
2. Eszenarioa, m bakoitzeko .....	8,00 €
3. Aulkiak, bakoitzeko.....	0,50 €
4. Mahaiak, bakoitzeko.....	6,00 €
5. Karpa handia .....	150,00 €
6. Karpa ertainak, bakoitzeko.....	60,00 €
7. Sutegiak, bakoitzeko .....	15,00 €
8. Taloak egiteko mahaia .....	200,00 €
9. Parrilla .....	200,00 €
10. Estufak, bakoitzeko .....	40,00 €
11. Eszenario txikia, modulu bakoitzeko .....	25,00 €
12.- Interpretaritza maleta .....	180 €

Interesdunak tasa ordaintzetik edota bermea jartzetik salbuestea eskatzen badu, eta Kultura batzorde informatzaileak materiala erabiliko den ekintza gizartearen interesekoa edo herri-onurako dela proposatzen badu, Alkatetzak salbuespena onartu dezake.



